



Biriatur, Arbolaren Bestan, 2025eko azaroaren 29an,
Ilargia eta Landareak agenda aurkezteko ekitaldi berezian.

1989-04-08 Usurbil Jaialdia

Joxe Miel Iztueta “Lazkao Txiki”

*Gure etxetik aurrera dago
sagardi berri-berria,
pozaren pozez hartu ezazu
nere ongi etorria,
zein alaigarri zu ikusita
dagoen Udaberria,
gure herriko frutu emale
sagasti maitagarria!*

*Lore txuritan jantzita zaude
gaur hain apain zaude dena,
zure gainean txoriak ere
dabilkiten zoramena,
inoiz bat edo bi igartutzean
nik hartutzen dedan pena,
zure igaliz egiten bait da
edaririkan onena.*

*Sagasti on bat lore berritan
ikusten danean txukun,
pentsatutzen det zenbat poztu ta
zenbat txoratutzen gaitun,
aspaldi hontan asko igertu
eta surtara dira jun,
nik eskatzen det lehenan ordainak
berriz aldatu ditzagun.*

Gaztainak jateko tenorea [Bertso idatzia]
Miel Mari Elozegi “Luze”

*Gaztainondoa eskuzabala
izan da beti gurekin
pikete, zura edo fruituak
kontutan hartuz beinepin
lagunartean bilduz sutondo
baten danboliñarekin
udazkeneko arratsak edo
negu aldekoak berdin
gozoagoak izaten dira
gaztain erre goxoekin.*

*Baina ohartu gaztainediak
gaur egun nola ditugun
asko zahartuta ta gaitzak jota
osasun onetik urrun
zaintzeko inor gutxi dugu ta
gaztain-gosek zenbat lagun!
gelditzen diren gaztainediak
zaindu ta zabal ditzagun
geroan ere sarritan entzun
nahi bada “txipli, txapla, pun”.*

Hazparne, 1894, Lore Jokoak. Ohorezko aipamena.

Muthil zahar bat bere mahastian, Piarres Ibarrrart

*Aitak eman zerautan zerurat juaitian
Enezat mahastia hartzeko lanean;
Artha nezala,
Aitak bezala,
Haintzur eta jorra,
Laguntzat hor nuela... sotoko ophorra.*

*Etxe xuri ttipi bat, badut mahastian,
Sagar, udare, phiko, mertxiken artean,
Etx'aitzinean,
Loren erdian,
Baratze alhorra,
Dutxuluaren pean... sotoko ophorra.*

*Mahastian xoriek goiz dute kantatzen;
Orduan bozkarioz lanari naiz lotzen;
Gero zait hasten
Bihotza hozten,
Agortzen zintzurra,
Laster dut eskuratzen... sotoko ophorra.*

*Neguan ez da deusik eder mahastian.
Aldaxketan molkoak agertu artian,
Ikhusiz huntan,
Osto artean
Larritzen pikorra,
Nola ahantz dezaket... sotoko ophorra.*

*Bertsu hauk egitean iphar-goxoa zen
Sotoan hari nintzen arnoen aldatzen;
Donado hemen
Zein ongi naizen,
Egin dut aithorra,
Tente xutik aldean... sotoko ophorra.*

Olibondo sakratua
Maddalen Arzallus Antia

-1-

*Olibondo sakratua,
bakearen legatua,
beraz, madarikatua...
Egur gogorra izanagatik,
hain zara delikatua...
Aroz aro kolpatua,
adar ezin kokatua,
minez bihurrikatua.*

2-

*Bizi irauteko grinez,
zailtasunetan ekinez,
eredugarria zinez!
Uda azkena heltzean ere
beti hostaje berdinez...
Nahiz ta egon negar minez,
askatu nahi ta ezinez,
zu gogor plantak eginez!*

-3-

*Lehorgune ta zartada,
zure hosto zilarkara
dotorezia marka da.
Bizitzan sarri beheko aldeaz
ahaztu egiten gara,
ta zu edozein gisara,
aurpegia ta islada,
ezin ederrago zara.*

-4-

*Udazkenean fruitua,
altxor txiki ezkutua,
zanpatua, estutua...
Nork aterako probetxu gehien,
nork aterako zukua...
Zure ale lapurtua,
preziatua, gurtua
ura urre bihurtua.*

-5-

*Mundu bortitz zabalean,
denbora eternalean,
irmo, eginahalean,
Palestinarren herria zaintzen
duzu zure magalean.
Nahiz zauriak azalean,
nahiz hormak lurrazalean,
zuk esperantza alean.*

-6-

*Bonba, metraila, tiroa,
ez ote duzu giroa
tenperaturaz igoa?
Ez dakit zaren biktima soila
ala zaren motiboa...
Ondo al zaude oliboa?
Ala zure olio
odol bihurturik doa?*

-7-

*Amildegia muturrean,
erortzeko beldurrean,
egon arren hil hurrean,
etorkizuna irakurtzen da
zure azal zimurrean.
Badakizu malurrean,
haize gogorren aurrean,
nola sustraitu lurrean.*

-8-

*Bere labar, bere malkor,
bizitza horren da galkor,
eta gizakia elkor...
Zu aldiz beti ixil-ixila,
hain umil ta hain moldakor.
Desagerpena badator,
gu ez gara izango nor
ta zu egongo zara hor.*

FRUTA ARBOLAK: EMANALDI BEREZIA



Azaroak 29, 13:30ean Biriatuko Arbolaren Bestan

Jakoba Errekondo

Fruta arbolei buruzko
azalpenak eta kontsultategia

2026ko Ilargia eta Landareak
agendaren aurkezpena

Urteko gaia: Fruta arbolak



Maddalen Arzallus

Bertso jarriak, zaharrak eta berriak, kantari



Antton Olariaga

Ilustrazioak umorez